

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Plataforma tecnol6gico batek Nafarroan egiten den ikerketa biomedikoari laguntza emango dio

Ikerketa Biomedikoko Zentroak eta Ikerketa Mediko Aplikatuko Zentroak zerbitzuen azpiegitura bat sortu dute

Jueves, 05 de julio de 2012

Nafarroako Gobernuarena den Miguel Servet fundazioa –haren mende dago Ikerketa Biomedikoko Zentroa (CIB)– eta Ikerketa Mediko Aplikatuko Zentroa (CIMA) kudeatzen duen Ikerketa Mediko Aplikatuko fundazioak lankidetzaren eremu bat izenpetu dute gaur egiten den ikerketa medikoari laguntzeko azpiegitura teknologiko bat sortzeko eta Foru Komunitate guztian egin ahal dadin, bai eta bere zerbitzuak behar dituen enpresa-sektoreari ere.



Ikerketa Biomedikoko Zentroaren etorkizuneko egoitza.

Miguel Servet fundazioak (FMS) nahiz Nafarroako Unibertsitateari lotutako Ikerketa Mediko Aplikatuko fundazioak (FIMA) azpiegiturak eta giza baliabideak jarriko dituzte plataforma hori abian jartzeko. Akordio horri esker, inbertsioetan (aparatu garestiak ez erosi beste aldeak erosi baditu, adibidez) eta teknikarien gaitasun tekniko eta zientifiko oso espezializatuan eraginkorragoa izango da.

Azken helburua Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari laguntzea da sektore bioteknologikoa bultzatuz, bai eta herritarren osasuna sustatzen eta babesten laguntzea ere, gaur izenpetu den lankidetzaren eremuan aipatzen denez. Akordioa izenpetzen izan dira: Osasuneko zuzendari nagusi Cristina Ibarrola eta FMS eta CIBeko zuzendari José María Roig Aldasoro eta FIMako zuzendari nagusi Francisco Errasti

Osasuneko zuzendari nagusi Cristina Ibarrola-k azaldu duenez, ADNren egituraren aurkikuntzak 1963an bide berri bat zabaldu zuen hainbat gaixotasunaren zergatia ikertzeko (ezintasunak, minbiziak, gaixotasuna neuromuskularrak, neuroendekapenezkoak...). Hala, medikuntza genomikoa edo banakakoa garatu zen, eta gaixotasun batzuekiko alde aurretiko joera edo zenbait tratamendurekiko sentsibilitatea aztertzen du.

Ezagutzan aurrera egiteko, plataformak sistema biologiko konplexuen azterketa erraztuko du ([omikoen](#) esparrua) genea, proteinak (300.000tik gora) eta metabolitoak aztertuz gaixotasunaren oinarri molekularrak argituz eta aplikazio klinikoko potentziala duten markagailu eta jomuga terapeutikoak identifikatuz.

Plataformak eragin zientifiko, kliniko eta ekonomiko handiagoa lortu nahi du. Aldeek, esaterako, Giza Proteomaren Munduko Proiektuaren ikerketan parte hartu ahal izango dute (proteinei buruz, genomaren sekuentziak ekarri zuenaren antzekoa). Espainiari 16. kromosomak adierazitako proteoma ikertzea egokitu zaio.

Indarrak batu

Osasuneko zuzendari nagusiak azpimarratu du une ekonomiko zail hauetan, baita ikerketarako ere, beharrezkoa dela "indarrak batzea, eraginkorrak izatea, itunak egitea eta gure indarguneak batzea". "Eta arrazoi horiengatik, gure zientifiko eta teknologoak elkarrekin jartzen ditugu, eta baita gure ekipamendua ere sistema biologiko konplexuak aztertzen laguntzeko", adierazi du.

Bestalde, Errastik akordio honen "aukeraren kostu egoki"-a azpimarratu du, Foru Komunitatea azpiegitura horrekin "eskumen nazionalako edota nazioarteko eskumeneko esparruan" kokatuta geratzen baita. Nabarmendu du teknologia omikoak ezinbestekoak direla ikerketaren abangoardian jartzeko, eta baliabideak optimizatzeko erakunde publiko eta pribatu baten arteko akordioa azpimarratu du. Aipatu duenez, emaitza aberasgarria izango da "bi aldeentzat, Foru Komunitatearentzat nahiz herrialde honentzat".

Lankidetzarako baldintzak

Gaur adostutako hitzarmen-eremuak lankidetzarako baldintzak arautzen ditu eta, bereziki, plataformaren zerbitzuak eta erabilera, baliabide bakar eta partekatutako gisa erabiltzen dena. Koordinatzaile nagusia bat izango du eta bi nodotan banatuko da, egoitza aipatutako erakunde bakoitzean izanik, nahiz eta lana era koordinatuan egingo den.

Erakunde bakoitzean lau atal bereiziko dira: Genomika, Proteomika, Metabolomika eta Bioinformatika. Haietako bakoitzaren buru teknologo bat izango da eta bertan beste hamaika teknikarik, ingeniari edo teknologok lan egingo dute, zortzi kontratazio berrikoak.

FIMak nahiz FMS/CIBek ikerketa-taldeei plataformako zerbitzuak erabiltzea erraztuko diete. Aldeek beste aldeko ikerketa-taldeak ikertzaile propioetat joko dituzte. Erakunde bakoitzak baliabideak izan ahalko ditu ikerketa propioarako, baina akordioa betearazten dela zainduko duen batzorde mistoari jakinarazi beharko dio. Emaitzen gaineko egiletza eta eskubideen jabetza emaitza garatu duen erakundearenak izango dira.